



FEDERAZIO ARTEKO LIGA 2012

LEHIAKETAREN OINARRIAK

1. Lehiaketa.- 2012ko Euskadiko Taldekako Xake Txapelketa EXFak antolatu du, FNA laguntzailea izanik.
2. Joku-sistema: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa ordezkatzan duten 10 talde arituko dira, eta itzuli bateko liga jokatu dute, bi mailetan (Ohore Maila eta lehenengo mailetan).
3. Hasiera ordua eta data.- 2012-01-14an arratsaldeko 4retan hasiko da ofizialki. Partiden hasiera orduan jokalekuan ez dagoen jokalaria erloju martxan jarriko da, baldin eta bere kontrarioa bertan bada. Bi jokalaria ez badaude jokalekuan, bi jokalarien erlojuen artean banatuko berandutze denbora hori. **Oharra.- 2012-03-17 data erabiliko da txandaren bat bertan behera geldituko balitz.**
4. Denbora eta joku erlazioa.- Partidek 90 minutuko iraupena izango dute, jokaldi bakoitzeko 30 segundoko gehigarriekin. Jokaldi guztiak idaztea beharrezkoa da.
5. Arauak.- 2009-07-01tik indarrean dagoen Nazioarteko Xake Federakuntzaren araudia, EXFren araudiak eta interpretazioak baliatuko dira.
6. Epaileak eta epaileen koordinazioa.- Epaileak izendatuko dira (urbiltasunaren arabera), batez ere lurralde arteko partidetarako, eta gainera EXFak ahal dituenetarako. Koordinaketa tekniko EXFri dagokio. Partiden hasiera orduan izendatutako epailea bertan ez balego, etxeko taldearen ordezkariak jarriko ditu erlojuak martxan. Jokalekuan epailea izaterik posible izango ez den partidetarako guardiako epailea izendatuko da, guardiako epaileak telefono mugikorren bidez galdetutakoa berehala erantzun du eta EXFri gertatutakoaren berri emango dio.
7. Jokalekua eta materiala.- Lehen taldeari joku lokaka dagokio (ikus azken laukia), Jokalekuaren egokitzapena (argitasuna, aireztapena, berogailua, edukiera, gela, eta abar), materiala (xake jokuak, mahaiak, jarlekuak, planillak, erlojuak, etab.) eta analisi gela eliteko lehiaketa mailari egoki dagozkionak izango dira. Epaile eta ordezkariak joku-baldintza egokiak bete daitezzen arduratuko dira. Jokalekuko telefono zenbakia edota gertutakoaren bat ematea gomendatzen da, harremanak errazteko, lokalak izan beharko du larrialdi aurretiko sistema.
8. Partidak aurreratu edo atzeratzeko aukera.- Txanda bateko partidak aurreratu daitezke, eta aurrekoak jokatu ondoren partidak atzeratzea ere posible da, beti ere hurrengo txanda ofiziala baino lehen jokatu badira. Aldaketa hori burutzeko, edozein kasutan ere bi taldeen adostasuna beharrezkoa da, data eta ordu berria finkatuta utziz. Akordio horren berri EXFri ordu ofiziala baino gutxienez 24 orduko aurrerapenez eman behar diote bi taldeetako ordezkariak. Bi aukera hoiak ez dituzte azken bi txandak barnean sartzen, azken bi txandak dagokien data eta ordu ofizialean jokatu baitira, salbuespen ezohikoetatik aurreko partidaren bat Komitearen erabakiaren zai ez bada. Erreserbarako aurreikusitako data gehienek erabil beharko luketen egoera berezietarako da.
9. Ordezkapenak eta jokalar berriak inskribatzea.- Hasierako epean (2011-12-01an), talde bakoitzak E.X.F.an aurkeztu beharko du, bere zerrenda, ordenean, gehienez 50 punturen aldean (FIDE, FEDA, FVA-EXF) ezberdintasun handienaren arabera jokalar bakoitzeko. Taldeak aukera izango du, zerrendetan baldintza honekin Euskal Liga Goi Mailan (Ohorezko mailan-2012), gutxienez 4 jokalar izan beharko dute, ezin izango dute egon, beste mailan edo kategorian, Horrez gain, bere taldean 4 horiek bere taldeko hamarreko elo altuena izango dutelarik.
10. Jokalarien bultzapena.- Jokalarien bultzapena mantentzen da, mail aedo kategoria batetik goiko mailara, baina absolutua baldin bada, hor geratuko da. Jubenilak edo feminak beharagoko talde batetik euskal ligara lau aldiz igo daitezke gehienez, laugarren partidaren ondoren goiko mailan gelditzen delarik.
11. Ordezkapenak.- Talde baten ordezkariak bere jokalarietako bat aurkeztuko ez dela baieztatzen duenean, talde horretako jokalaria zerrendaren arabera ordenean aurrerantz mugituko dira, lehendabiziko mahaietan jokatzeko. Behar ez bezalako alineazioa gertatzen den mahaiak zeroarekin zigortuko dira.
12. Zerrendan ez dagoen jokalaria.- Talde baten hasierako jokalar-zerrendan ez dagoen jokalar federatua taldera sartzen denean jokalar-zerrendan bere eloaren arabera postua hartuko du, bere elo baino txikiagoa duen jokalaririk bere aurretik egongo ez delarik. Jokalar berria izena emateko eta jokatzeko aurre ikusitako data baino 7 egun lehenago E.X. F.ri jakin arazi beharko zaio, eta honek epaileari eta talde arerioari, eta beti ere seigarren txanda (2012-02-18an), hasi baino lehen. Jokalar berriak taldean sartu bezain laister, bere eloaren arabera jarriko da, hórrela, ez da egongo elo gutxien duen jokalaria bere aurrean.



13. Alineazioak.- Neurketa hasi aurretik, 4 jokalaria, taldeko ordezkaria edo kapitainak aurkeztu beharko du bere zerrenda, horietako 2 gutxienez izan beharko dute, E.X.F. tik edo FEDAtik hautatuak.

14. Kirol Elkarteak eta lizentziak gauzatzea.- Kirol Elkarte (klub) eta xake kirol-sailak Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatuta egon beharko dira, edota bideratze ofizialak egiten ari direla frogatzea. Zerrendatutako jokalaria guztiak federazio lizentzia eskatuta izango dute. Bi betekizunak lehen txanda (2012-01-14) baino lehen bete beharko dira. Kirol Elkarteen, jokalarien eta teknikarien lizentziak araudian horretarako aurreikusitako epearen barruan ordainduko dira.

15. Harremanak eta aktak bidaltzea.- Epaileak eta epailerik egon ezean taldearen ordezkariak txanda bakoitzaren emaitzaren berri eman beharko du 24 orduko epean; **E-mailez taulaz taula eman den emaitza bidali beharko du**, hortaz gain, akta eta partiden planillak dagozkien oharrekin batera EXFn aurkeztu beharko ditu, zazpi eguneko epean. Harremanetarako fv@xake.net fvajedrez@facilnet.es helbide elektronikoa edo ondorengo telefono zenbakiak erabili beharko dira: (943-762650 – 943-767325) EXFren Idazkaritzako telefonoa eta faxa; FADA (945-133702); FVDA (94-4415231); FGA (943-474604); N.X.F.-F.N.A. (948-229620); Muela jauna (646-021574)-. Iruretagoiena jauna (943-191374).

16. Aktak betetzea eta erreklamazioak aurkeztea.- Aktan eskatzen diren datuak idatziko dira eta akta talde bakoitzeko ordezkari edo kapitainak eta epaileak izenpetuko dute. Norbaitek izenpetzeari uko egingo balio, gertaera hori adieraziko da. Atzekaldean edo batera erantsitako orriari oharra, gertakariak edota aurkeztutako erreklamazioak zehaztuko dira. Kasu hauetan, gutun ziurtatua edo fax bidez EXFn aurkeztu beharko dira 48 orduko epean, neurketa jokatu den unetik hasita, epailearen txostenarekin batera.

17. Telefono mugikorra eta baliabide elektronikoak.- Partidan zehar telefono mugikorra, programa informatikoa edo baliabide elektronikoak erabiltzea galarazita dagoela gogorarazten da. Araua betetzen ez bada, galdutzat emango da.

18. Kirol-disziplina Batzordea.- EXFk Disziplina Batzordea izendatuta dauka, hori aurkeztuko zaizkio txapelketan gertatuko liratekeen arazo guztiak. E.X.F.ko Disziplina Batzordeko Arautegian indarrean dagoena ekingo da.

19. Diru laguntza eta sariak.- Liga bukatu ondoren, eta alde zuzen dagozkien ordainagiriak aurkeztutakoan kilometro bakoitzeko 0,25 € baliorearen diru laguntza jasoko dute EXF-rengandik. Epaileek dagokien bidai gastu eta dietak jasoko dituzte. Talde Txapelduna eta txapeldun-ordea, Euskadiko Xake Azkarreko Txapelketaren finalera gonbidatuak izango dira. Halaber, euren sailkapenari dagokion onarpena jasoko dute. Euskal Autonomi Erkidegoko lehen sailkatuak, txapeldun moduan dagokion Taldekako Espainiako Txapelketa jokatu dezake. Nahitaezkoa da bere partehartzea dagokion epe barruan baieztatzea. Jokalari nabarmenenak kontutan hartuko dira izan daitezkeen sustapenetarako.

20. Neurketen puntuazioa.- Taldearen puntuazioa ateratzeko taldekide guztienak batuko dira. Jokalari batek irabazten duen partidak puntu bat balioko du, berdinduz gero puntu ½ eta galduz gero 0 puntu (puntuazio handiena 4-0).

21. Berdinketa hausteko sistemak.- Sailkapena egiterakoan, taldeen arteko puntu berdinketa egonez gero, honako sistema hauek erabiliko dira berdinketa hausteko, hemen agertzen diren hurrenkera berean:

a) Neurketen emaitza: garaipenagaitik 3 puntu, berdinketagaitik puntu 1 eta galtzeagaitik 0 puntu. b) Elkarren arteko emaitza, c) Holandar sistema, d) Sonennborg Berger (taldeentzako metodoa).

22. Emaitzak “elo”-rako balioztatzea.- Lehiaketan parte hartzen duten jokalarien emaitza guztiak euskal elorako kontuan hartuko dira, eta horrela badagokie FEDA/FIDE elorako baita ere.

23. Partidak idaztea eta Boletina.- Partida guztiak zuzen idatzi beharko dira sistema algebraikoa erabiliz. Aktekin batera, planillen original argi bat bidaliko da. EXFak Txapelketaren berri eman nahi duela eta partidak argitaratzeko asmoa duela gogorarazten da, partidak jokalarien azalpenekin batera bidaltzea gomendatzen da.

24. Sailkapen kuadroa eta informazioa.- Astero-astero, txanda bakoitzaren ondoren EXFk sailkapen kuadroaren berri emango du. Komunikabideen bitartez ere lehiaketaren berri ematen saiatuko da. Ordea, zeregin horretan laguntzea komeni da, kirol elkarte eta lurralde federakuntzek euren eremuan informazioa eman dezaten.

25. Ez aurkezteagatik zigortzea.- Ez aurkezteak taldeko partziala edo osoa neurketa batera zigorra darara. E.X.F.ko kirol disziplina indarrean dagoen Arauetan jartzen den bezala.

26. Itzarote denbora. Ordubeteko itzarotea mantentzen da txapelketarako hasierako ordu ofizialetik (larunbateko arratsaldeko 16:00tik orokorrean), Neurketa hasteko hasiera ordua baino ordu bete beranduago aurkezten den jokalaria edo taldeak, partida galduko du, (behar bezala hausnartu beharreko egoera berezia frogatu ezean), Lehen ordu horretan bi taldeak edo bi jokalaria berandutzen badira, atzerapen hori bien artean banatuko litzateke.



27. Etxeko taldearen koloreak eta ardurak.- Neurketa 4 jokalariekin (4 mahaietan) jokatuko da, etxeko taldeko 1 eta 3 zenbakiek zuriekin jokatuko dute. Asterisko (*) daramanak salbu (ikusitakoak), horiek Berger taula jarraituz 2 eta 4 jokalariek pieza zuriek eramango dituzte. Bi taldeetako kideen artean eta epailearekin edota federakuntzako agintariekin begirunez jokatzea gomendatzen dugu.

28. Igoerak eta jeitsierak: Lehenengo mailara igoko dira:

-Arabako lehenengo klasifikatua, Bizkaiko lehenengo klasifikatua, Gipuzkoako lehenengo klasifikatua, eta Nafarroako lehenengo klasifikatua, beti bostgarren postutik klasifikatu artean haien lurraldetik.

Jeitsiko dira sailkapen nagusitik azken 4 taldeak.

Ohorezko mailara igoko dira: Lehenengo mailatik bostgarren postutik klasifikatu direnen artean lehenengo bi talde klasifikatuak.

Ohorezko mailatik jeitsiko dira lehenengo mailara, beti azken bi klasifikatuak.

Ohorezko mailatik "A" taldea jeisten bada lehenengo mailara "B" taldea lehenengo mailatik jaistea batera eramaten du, nahiz eta, jaisteko lekua ez eraman.

Bi maileko taldeen zirkunstantziatzeko ordezkapenak azken sailkapenaren arabera egingo dira.

29. Federazio arteko Liga. 2011. Urteko arauetan jarraituz, eta klasifikatu direnen eta taldeen eskubidea mantenduz, bi mailak mantentzen dira, bakoitza 10 talde osaturik.

Ez dira parte hartzen maila berdinean 2 talde (A eta B) bere taldekoak.

30. Parte hartzen diren taldeen zozketa:

Ohorezko maila:

01. Gros X. Taldea de Donostia
02. C.A. Zuri Baltza de Bilbao
03. C.A. Batalla de Irun
04. C.A. Orvina A de Pamplona
05. A.D. Ruta de Europa A de Subijana de Alava
06. A. D. San Viator de Vitoria
07. C.A. Naturgas Sestao A de Sestao
08. C.A. Easo de San Sebastian
09. C.A. Conteneo de Bilbao
10. C.A. Alzaga de Leioa

Lehenengo maila:

01. A.D. San Juan de Pamplona
02. A. Fomento Cultural de Renteria
03. C.A. Oberena de Pamplona
04. C.A. Orvina B de Pamplona
05. A.D. Ruta de Europa B de Subijana de Alava
06. C.A. Barakaldo de Barakaldo
07. C.A. Naturgas Sestao B de Sestao
08. C.A. Zornotza de Zornotza
09. C. A. Arrasate/Arlutz de Arrasate
10. C.A. Eguzki de Urnieta

31. Neurketak,-

1ªR.-	1-10 2-9 3-8 4-7 6-5*	14-01-2012
2ªR.-	10-6 5-7* 8-4 9-3 1-2	21-01-2012
3ªR.-	2-10 3-1 4-9 5-8 7-6*	28-01-2012
4ªR.-	7-10* 6-8* 9-5 1-4 2-3	04-02-2012
5ªR.-	10-3* 4-2 5-1 6-9 8-7*	11-02-2012
6ªR.-	8-10* 9-7 1-6 2-5 3-4	18-02-2012
7ªR.-	10-4* 5-3 6-2 7-1 9-8*	25-02-2012
8ªR.-	10-9 8-1* 7-2* 3-6 4-5	03-02-2012
9ªR.-	5-10 6-4 7-3 8-2 9-1	10-03-2012

Lehenengo txanda::

Ohorezko maila: (1ª R.)

- Gros X.T. – Alzaga
- Zuri Baltza – Conteneo
- Batalla – Easo
- Orvina A – Naturgas Sestao A
- San Viator – Ruta de Europa A

Lehenengo maila: (1ª R.)

- San Juan - Eguzki
- F. Cultural – Arrasate/Arlutz
- Oberena - Zornotza
- Orvina B – Naturgas Sestao B
- Barakaldo – Ruta de Europa B

32. Egunak eta Joku lokalak: Neurketak egingo dira jarritako egunetan. Neurketa bat bertan behera geldituko balitz, zortzigarren erronda baino lehen jokatu beharko da.

Azken neurketa leku berdinean egingo da, talde guztiak eta mailakoak.

Lehenengo adierazitako taldeko lokalean jokatuko da, parekatzeko (ad. A.D. San Viator- Ruta de Europa), baina asterisko (*) daramatenak jokatuko dira (ad. A.D. San Viator – Ruta de Europa) 2 eta 4 zuriek eramango dituzte.